**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2010EKO URRIAREN 8AN EGINIKO EZOHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, 2010eko urriaren 8ko eguerdiko 12:30 zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos Merino alkate jaunaren (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Joseba ECHARTE MARTIN
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Mª del Mar CARRILLO GASCON

(Guztiak Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldekoak).

- Joxe Mari BURGOS VIÑARAS jaunek (Alkarbide)

- Ez dira etorri, baina ezinetorria adierazi dute Joaquín ACOSTA PACHECO, Luis Ignacio ANDRES JIMENEZ (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) eta Maite PEÑA LOPEZ (EAJ/PNV).

Bertan dago, egintzaz fede emateko, Tomas Martin Azpillaga jauna, behin behineko idazkari.

**1.- <u>Irakurtzea eta onartzea, hala badagokio, 2010eko uztailaren 16ko eta irailaren 17ko ohiko bilkurei dagozkien aktak</u>.**

Idazkari Ordeak Tokiko Gobernu Batzarraren 2010eko uztailaren 16ko eta irailaren 17ko ohiko bilkurei dagozkien aktak irakurri ditu.

Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez

**E R A B A K I D U**

- Onartzea Tokiko Gobernu Batzarraren 2010eko

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE JUNTA DE GOBIERNO LOCAL CELEBRADA EL DÍA 8 DE OCTUBRE DE 2010**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 12:30 horas del día 8 de octubre de 2010, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde D. Juan Carlos MERINO GONZALEZ (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) los siguientes Concejales:

- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Mª del Mar CARRILLO GASCON

(Todos del grupo Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

- Joxe Maria BURGOS VIÑARÁS (Alkarbide).

- No asisten, excusando su asistencia, Joaquín ACOSTA PACHECO, Luis Ignacio ANDRES JIMENEZ, (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), ni Maite PEÑA LOPEZ (EAJ/PNV).

Asiste y da fe del Acto el Secretario General Acctl. Tomás Martín Azpillaga.

**<u>1. Lectura y aprobación, en su caso, de las Actas correspondientes a las Sesiones Ordinarias de fecha 16 de julio y 17 de septiembre de 2010.</u>**

Leídas por el Secretario General Acctl. las Actas correspondientes a las Sesiones Ordinarias de Junta de Gobierno local de fechas 16 de julio y 17 de septiembre, de 2010.

La Junta de Gobierno Local por unanimidad

A C U E R D A

- Aprobar las Actas correspondientes a las Sesiones



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

uztailaren 16ko eta irailaren 17ko ohiko bilkurei dagozkien aktak.

Ordinarias de Junta de Gobierno Local de fechas 16 de julio y 17 de septiembre, de 2010.

**2.- MIAUKA elkartea Herriaren onurakoak diren eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarteen Udal Erregistroan sartzeko proposamena.**

**2. Propuesta de inscripción de la asociación MIAUKA en el Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin ánimo de lucro.**

2010eko uztailaren 2an MIAUKA kaleko katutxoari laguntzeko elkartea-Asociación para ayudar a los gatitos de la calle elkarteak idatzi bat eta dokumentazioa aurkeztu zituen beren elkartea Herriaren onurakoak diren eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarteen Udal Erregistroan sartzeko eskaera egiteko.

Visto el escrito y documentación presentadas, con fecha registro de entrada 2 de julio de 2010, por la Asociación MIAUKA kaleko katutxoari laguntzeko elkartea-Asociación para ayudar a los gatitos de la calle solicitando su inscripción en el Registro municipal de Asociaciones sin ánimo de lucro de interés municipal.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ondoriozta daiteke eskaera egin duen elkarteak Udal Araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela; izan ere

Visto que de la documentación aportada se deduce que la Asociación solicitante cumple con los requisitos establecidos en el Reglamento municipal, pues:

- Elkartearen Estatutuak aurkeztu ditu, eta horietan adierazten denez ez du dirua irabazteko helbururik.

- Presenta los Estatutos de la Asociación y en los mismos se señala que la misma no tiene ánimo de lucro.

- Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantza Sailaren Elkarteen Erregistroan izena emana izatearen egiaztagiria aurkeztu du.

- Presenta justificante de estar inscrita en el Registro de Asociaciones del Departamento de Justicia, Economía y Seguridad Social del Gobierno Vasco.

- Jasota daude zuzendaritza karguak betetzen dituzten pertsonen izenak.

- Consta el nombre de las personas que ocupan puestos directivos.

- Izen soziala jasota dago.

- Consta el nombre social.

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emana izatearen egiaztagiria aurkeztu dute.

- Presentan el justificante de Alta en el Impuesto de Actividades Económicas.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

- Aukerakoa izan arren, jarduera programa aurkeztu dute.

- Presentan, a pesar de ser optativo, el programa de actividades.

2010eko irailaren 16an Udaltzaingoaren Ofizialburuak aldeko txostena eman zuen.

Visto el informe favorable del Oficial-Jefe de la Policía Local emitido con fecha 16 de septiembre de 2010.

Hori dela eta, eta Herriaren onurakoak diren eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarteen Erregistroa arautzen duen Udal Araudiaren laugarren artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Por ello, y de conformidad con lo establecido en el artículo cuarto del Reglamento municipal del Registro de Asociaciones sin ánimo de lucro de interés municipal,

Udaltzaingoa, Trafikoa eta Garraioak Saileko ordezkariaren proposamenez

A propuesta del Delegado de Policia Local Tráfico y Transportes,

Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez,

La Junta de Gobierno Local por unanimidad,

**ERABAKI DU**

- Onartzea MIAUKA KALEKO KATUTXOARI LAGUNTZEKO ELKARTEA – ASOCIACION PARA AYUDAR A LOS GATITOS DE LA CALLE elkarteak Herriaren onurakoak diren eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarteen Erregistroan sartzeko egindako eskaera.

**A C U E R D A**

- Aprobar la solicitud de inscripción en el Registro municipal de Asociaciones sin ánimo de lucro de interés municipal, realizada por la Asociación MIAUKA KALEKO KATUTXOARI LAGUNTZEKO ELKARTEA – ASOCIACION PARA AYUDAR A LOS GATITOS DE LA CALLE.

---------------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 12:40 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

---------------

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 12:40 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al _____ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net